



SARA BERASATEGUI FUERTES, Tolosako udal idazkaria.

NEUK ZIURTATUA:

Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita seiko apirilaren hogeita hamarrean, egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

6. HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO, PREZIO PUBLIKOEN ALDAKETARI BURUZKO IRIZPENARI.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2026ko apirilaren 22ko irizpena.

IKUSIRIK

LEHENA.- Diruzaintza azpisaileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“

LEHENA.- 1989ko irailaren 29an, Ohiko Osoko Bilkurak prezio publikoen ordenantza onartu zuela eta 2025ko urriaren 30ean, Ohiko Osoko Bilkurak, prezio publikoen aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- Hainbat sailek prezio publikoen ondorengo eranskinak aldatzea proposatu dituztela:



• **3.1.6 ERANSKINA: MUSIKA ESKOLA**

Lehena.-Musika eskolako prezio publikoak %2,35 igotzea proposatzen da, hau da, otsaileko Hego Euskal Herriko bataz besteko KPIa. Taula honela geratuko litzateke:

	2025-2026	2026-2027
1. zikloa	214,80 €	219,85
2. zikloa	637,35 €	652,35
2. zikloa b*	425,10 €	435,10
3. zikloa	770,20 €	788,30
3. zikloa b *	533,65 €	546,20
4. zikloa		
a) Musika taldea	107,40 €	109,90
b) instrumentua + musika taldea	425,10 €	435,10
Ikasle errefortzatuak	983,90 €	1.007,00
Ikasgai teorikoak	214,80 €	219,85
Bigarren instrumentua	214,80 €	219,85

b* ikasketak gaindituta dituztenentzat

Bigarrena.- Ordainketa epeei buruz, ondorengoa azaltzen da gaur egun:

a) 1. Kuota_%50:

- Aurreko urteetako ikasleak: uztailaren 15tik 30 era

- Ikasle berriak eta bakanteen zain dauden ikasleak: azaroaren 1tik 15era



b) 2.kuota_%50: otsailaren 1etik 15era

Musika eskolatik ondorengo proposatu dute:

a)1.Kuota_%50:

- Ekainean matrikula egiten duten ikasle guztiak, bai aurreko urteetakoak baita berriak ere: uztailaren 15etik 30 era

- Irailean matrikula egiten duten ikasle guztiak, bakanteen zain daudenak eta berriak, azaroaren 1etik 15era

b) 2.Kuota_%50: otsailaren 1tik 15era

• **3.1.7 ERANSKINA: KULTUR TAILERRAK**

Lehen.-Kultur tailerretako prezio publikoak %2,35 igotzea proposatzen da, hau da, otsaileko Hego Euskal Herriko batz besteko KPIa. Taula honela geratuko litzateke:

	2025-2026	2026-2027
Pintura ikastaroa.14 urtez gorakoak	220,55	225,75
Eskulanak. 6-14 urte bitartekoak	162,25	166,05
Zeramika ikastaroa urteko	220,55	225,75
Antzerki ikasturtea	196,55	201,15
Argazkigintza (100 ordu)	265,10	271,35
Argazkigintza (80 ordu)	212,10	217,10
Argazkigintza (60 ordu)	159,05	162,80
Balleta	167,95	171,90
Balleta aurreratua	229,70	235,10

ESKUF051a61f-d6d4-42ed-b22f-8bdb54f4d25c



Balleta puntak	62,85	64,35
Dantza garaikidea	229,70	235,10
Ehoziriak eta patchwork	220,55	225,75

Bigarrena.- Bi prezio publiko berri sortzea proposatzen dute:

- Argazkigintza (40 ordu)
- Dantza garaikidea hastapena (astean behin)

Kasu honetan, gaur egun dauden prezio publikoen proportzionalak izango dira. Hau da:

- Argazkigintza: 108,55 euro
- Dantza garaikidea hastapena(astean behin): 117,55 euro (gaur egun, dantza garaikidea astean bitan denez, eta hau astean behin, erdia kobratzea proposatzen da).

Hirugarrena.- Ikasturte osoa bi zatitan ordaintzeko aukera kentzea eta prezio publiko guztia matrikula egiterakoan ordaintzeko aukera bakarra uztea.

Gaur egun honela dago:

5.- Matrikulazio aukerak eta zenbatekoa ordaintzeko moduak:

5.1.- Ikasturte osoa (urritik ekainera)

- Tarifa osoa matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin. Ordainketa epemuga: abenduaren 11
- Tarifa osoa bi zatitan:
 - 1. Kuota matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin: %50. Ordainketa epemuga: azaroaren 15etik 30era.
 - 2. Kuota: %50. Ordainketa epemuga: otsailaren 15etik 28ra.

Honela geratuko da:

5.- Matrikulazio aukerak eta zenbatekoa ordaintzeko moduak:



5.1.- Ikasturte osoa (urritik ekainera)

Tarifa osoa matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin. Ordainketa epemuga:
abenduarien 11

Laugarrena.- Gaur egun, baja eskaeren aurrean, hau dago aurreikusita:

“ Ikasleak baja eskatzen bada beti ere artikulu honetan adierazitako arrazoiren batengatik, ikastaroaren kuota osoa hilabeteka hainbanatuko da. Ikasleak baja eskatzen den hilabetea ere ordaindu beharko du.

Ikasleak baja eskatzeko arrazoiak:

- *Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, ikasketak jarraitzeko ezintasun larria duela adieraziz.*
- *Haurdunaldia, medikuak baloratutako arriskua ikusita.*
- *Amatasun edo aitatasun baja.*
- *Ikasketa arautu edota homologatuen derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada*
- *Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...) zein pertsonalean, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.*

Inongo kasutan ez da itzuliko kuotaren zenbateko osoaren % 20a.”

Ondorengo arrazoiak eranstea proposatzen da:

“Ikasleak klase bakar bat ere ez duela hartu ziurtatuta egotea, irakaslearen komunikazioaren bidez.”

- **3.1.8 ERANSKINA: EUSKALTEGIA**

Lehen a.- Euskaltegiko prezio publikoak %2,35 igotzea proposatzen da, hau da, otsaileko Hego Euskal Herriko batz besteko KPIa.



	2025 / 2026	2026-2027
Aurrez aurreko taldeak (C2 izan ezik)	1,39 €/orduko	1,42 €/orduko
Aurrez aurreko taldeak C2	2,09 €/orduko	2,14 €/orduko
Autoikaskuntza taldeak (C2 izan ezik)	2,50 €/orduko	2,56 €/orduko
Autoikaskuntza C2	3,75 €/orduko	3,84 €/orduko
Jardun bikoa (C2 izan ezik)	1,95 €/orduko	2,00 €/orduko
Jardun bikoa C2	2,36 €/orduko	2,42 €/orduko
Enpresei eskainitako ikastaroak	73 €/orduko 1,65 €/km	74,72 €/orduko 1,69 €/km

• **3.1.17 ERANSKINA: BISITA GIDATUAK**

Tolosako Udalaren lehentasun estrategikoen artean dago tokiko turismoa sustatzea, udalerrriaren garapen ekonomiko eta sozialerako funtsezko tresna gisa.

Turismoaren sustapenean aurrera egiteko, gaur egun indarrean dago Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Garatzen, S.A. erakundearen arteko bi hitzarmen:

- Bata, Tolosako turismo bulegoaren erabilera eta kudeaketa arautzen duena. Zentzu horretan, 2021eko abuztuaren 20ko 2021/1429 Dekretu bidez erabaki zen Plaza Zaharreko 10 zenbakiko beheko solairuan kokatzen den 9483 erregistro-finka Tolosaldea Garatzen, S.A. erakundeari esleitzea, bertan Tolosaldeko turismo bulegoa kokatzeko.

- Bestea, turismo produktuen (oroigarriak) salmenta eta kudeaketa arautzen duena. 2022ko uztailaren 6ko 2022/11 Dekretu bidez hitzarmena onartutakoa, zeinaren bidez Tolosako



Udalak turismo bulegoari zenbait produktu turistiko entregatzen dizkion salmentarako.

Bisita gidatuen zerbitzua turismo bulegoaren bitartez eskaintzen da, eta haren jarraitutasuna bermatzeko udal esku-hartzea beharrezkoa dela.

Bisita gidatuen zerbitzuaren prezioak onartu behar dira.

Hau da proposamena:

Aplikazio arauak:

1.- Kontzeptua.

Tolosako udalak bisita gidatuen zerbitzua eskaintzen du: Tolosako Alde Zaharrera bisita, Andre Mari elizako bisita eta Tolosako Azokako bisita bertako produktuen dastaketarekin.

2.- Ordaintzera behartuak.

Bisita gidatuko zerbitzua erabiltzen dutenek ordaindu beharko dute prezio publikoa.

3.- Sortzapena.

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra erabiltzaileak bisita gidatuaren zerbitzua kontratatzen duenean sortzen da.

4.- Zenbatekoa.

Prezio publikoaren zenbatekoa eranskinean ezarritakoa izango da.

5.- Kudeaketa.

Ordenantza honetan arautzen den prezio publiko hauek kitzeari, biltzeari eta ikuskatzeari dagozkion guztian, Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa izango da aplikagarria.

ERANSKINA:

Tolosako Alde Zaharrera bisita:



- Tarifa orokorra: 4 €.

- Tarifa murriztua: 3 € (erretiratuak, 4-16 urtekoak, langabeak, Nekatur eta Basquecard txartelak dituztenak, 15 pertsona baino gehiagoko taldeak). Doakoa: 4 urtetik beherakoentzat.

Andre Mari elizako bisita:

- Tarifa orokorra: 4 €.

- Tarifa murriztua: 3 € (erretiratuak, 4-16 urtekoak, langabeak, Nekatur eta Basquecard txartelak dituztenak, 15 pertsona baino gehiagoko taldeak). Doakoa: 4 urtetik beherakoentzat

Tolosako Azokako bisita bertako produktuen dastaketarekin:

- Tarifa orokorra: 10 €.

- Tarifa murriztua: 7,5 € (erretiratuak, 4-16 urtekoak, langabeak, Nekatur eta Basquecard txartelak dituztenak, 15 pertsona baino gehiagoko taldeak). Doakoa: 4 urtetik beherakoentzat

KONTUAN HARTURIK

- Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru arauan honakoa xedatzen da:

Prezio publikotzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskumeneko zerbitzu prestazioak edo jarduera administratiboak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldintza hauek betetzen direnean:

- *Zerbitzu edo jarduera horiek ez izatea administratuek nahitaez eskatu edo jaso*



beharrekoak.

- *Zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak eman edo egitea.*

- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onspena ematea: Udalbatza.

Beraz, udal-teknikari honek honako hau **PROPOSATZEN DU:**

LEHENA.- Prezio publikoen 3.1.6 eranskina (Musika Eskola) aldatzea goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %2,35 igotzea
- Ordainketa epeak aldatzea

BIGARRENA.- Prezio publikoen 3.1.7 eranskina (Kultur tailerrak) aldatzea goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %2,35 igotzea
- Bi prezio berri eranstea: argazkigintza (40 ordu) eta dantza garaikidea hastapena.
- Prezio publikoa ordainketa bakarrean ordaintzea
- Baja arrazoi berria sartzea.

HIRUGARRENA.- Prezio publikoen 3.1.8 eranskina (euskaltegia) aldatzea, goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %2,35 igotzea

LAUGARRENA.- Prezio publikoen 3.1.17 eranskina sortzea, bisita gidatuei dagokiena eta bere prezio publikoak onartzea.

APLIKAZIO ARAUAK:

1.- Kontzeptua.

Tolosako udalak bisita gidatuen zerbitzua eskaintzen du: Tolosako Alde Zaharrera bisita, Andre Mari elizako bisita eta Tolosako Azokako bisita bertako produktuen dastaketarekin.



2.- Ordaintzera behartuak.

Bisita gidatuko zerbitzua erabiltzen dutenek ordaindu beharko dute prezio publikoa.

3.- Sortzapena.

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra erabiltzaileak bisita gidatuaren zerbitzua kontratatzen duenean sortzen da.

4.- Zenbatekoa.

Prezio publikoaren zenbatekoa eranskinean ezarritakoa izango da.

5.- Kudeaketa.

Ordenantza honetan arautzen den prezio publiko hauek kitatzeari, biltzeari eta ikuskatzeari dagozkion guztian, Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa izango da aplikagarria.

ERANSKINA:

Tolosako Alde Zaharrera bisita:

- Tarifa orokorra: 4 €.

- Tarifa murriztua: 3 € (erretiratuak, 4-16 urtekoak, langabeak, Nekatur eta Basquecard txartelak dituztenak, 15 pertsona baino gehiagoko taldeak). Doakoa: 4 urtetik beherakoentzat.

Andre Mari elizako bisita:

- Tarifa orokorra: 4 €.



- Tarifa murriztua: 3 € (erretiratuak, 4-16 urtekoak, langabeak, Nekatur eta Basquecard txartelak dituztenak, 15 pertsona baino gehiagoko taldeak). Doakoa: 4 urtetik beherakoentzat

Tolosako Azokako bisita bertako produktuen dastaketarekin:

- Tarifa orokorra: 10 €.

- Tarifa murriztua: 7,5 € (erretiratuak, 4-16 urtekoak, langabeak, Nekatur eta Basquecard txartelak dituztenak, 15 pertsona baino gehiagoko taldeak). Doakoa: 4 urtetik beherakoentzat

BOSGARRENA.- Erabaki hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako eta hura betetzeko, hogeita hamar egun balioduneko epean azalduko da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek aipatutako espedientea aztertu ahal izango dute, Idazkaritza Nagusiaren eta Udal Kontu-hartzaitzaren bulegoetan, eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak eta/edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.

Jendaurrean ikusgai dagoen bitartean erreklamaziorik aurkezten ez bada, osoko bilkuraren erabaki hori behin betikotzat joko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. in fine artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, jendaurrean jarriko da udaleko iragarki-taulan, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, informazio-ondorioetarako, bai eta Tolosako Udalaren egoitza elektronikoan ere (<https://www.tolosa.eus>).

Aldaketa hau indarrean jarriko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako 15 egun balioduneko epea igarotakoan.”



Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2026ko apirilaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Miren Yosune Sanz Vidal, Cristina Pelaez Errazquin, Ander Figuerido Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Prezio publikoen 3.1.6 eranskina (Musika Eskola) aldatzea goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %2,35 igotzea
- Ordainketa epeak aldatzea

BIGARRENA.- Prezio publikoen 3.1.7 eranskina (Kultur tailerrak) aldatzea goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %2,35 igotzea
- Bi prezio berri eranstea: argazkigintza (40 ordu) eta dantza garaikidea hastapena.
- Prezio publikoa ordainketa bakarrean ordaintzea
- Baja arrazoi berria sartzea.

HIRUGARRENA.- Prezio publikoen 3.1.8 eranskina (euskaltegia) aldatzea, goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %2,35 igotzea

LAUGARRENA.- Prezio publikoen 3.1.17 eranskina sortzea, bisita gidatuei dagokiena eta bere prezio publikoak onartzea.

APLIKAZIO ARAUAK:

1.- Kontzeptua.

Tolosako udalak bisita gidatuen zerbitzua eskaintzen du: Tolosako Alde Zaharrera bisita, Andre Mari elizako bisita eta Tolosako Azokako bisita bertako produktuen dastaketarekin.



2.- Ordaintzera behartuak.

Bisita gidatuko zerbitzua erabiltzen dutenek ordaindu beharko dute prezio publikoa.

3.- Sortzapena.

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra erabiltzaileak bisita gidatuaren zerbitzua kontratatzen duenean sortzen da.

4.- Zenbatekoa.

Prezio publikoaren zenbatekoa eranskinean ezarritakoa izango da.

5.- Kudeaketa.

Ordenantza honetan arautzen den prezio publiko hauek kitatzeari, biltzeari eta ikuskatzeari dagozkion guztian, Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa izango da aplikagarria.

ERANSKINA:

Tolosako Alde Zaharrera bisita:

- Tarifa orokorra: 4 €.

- Tarifa murriztua: 3 € (erretiratuak, 4-16 urtekoak, langabeak, Nekatur eta Basquecard txartelak dituztenak, 15 pertsona baino gehiagoko taldeak). Doakoa: 4 urtetik beherakoentzat.

Andre Mari elizako bisita:

- Tarifa orokorra: 4 €.

- Tarifa murriztua: 3 € (erretiratuak, 4-16 urtekoak, langabeak, Nekatur eta Basquecard txartelak dituztenak, 15 pertsona baino gehiagoko taldeak). Doakoa: 4 urtetik beherakoentzat



Tolosako Azokako bisita bertako produktuen dastaketarekin:

- Tarifa orokorra: 10 €.

- Tarifa murriztua: 7,5 € (erretiratuak, 4-16 urtekoak, langabeak, Nekatur eta Basquecard txartelak dituztenak, 15 pertsona baino gehiagoko taldeak). Doakoa: 4 urtetik beherakoentzat

BOSGARRENA.- Erabaki hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako eta hura betetzeko, hogeita hamar egun balioduneko epean azalduko da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek aipatutako espedientea aztertu ahal izango dute, Idazkaritza Nagusiaren eta Udal Kontu-hartzaitzaren bulegoetan, eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak eta/edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.

Jendaurrean ikusgai dagoen bitartean erreklamaziorik aurkezten ez bada, osoko bilkuraren erabaki hori behin betikotzat joko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. in fine artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, jendaurrean jarriko da udaleko iragarki-taulan, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, informazio-ondorioetarako, bai eta Tolosako Udalaren egoitza elektronikoan ere (<https://www.tolosa.eus>).

Aldaketa hau indarrean jarriko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako 15 egun balioduneko epea igarotakoan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.



TOLOSAKO
UDALA

2026IPLE0004

Beraz, Udaltzako, aho batez, hasierako onespena eman dio prezio publikoen aldaketari buruzko irizpenari.

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntza Lan Esparruko zinegotzi delegatuaren onespenearekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan.

O.e.
**ANTOLAKUNTZA LAN ESPARRUKO
ZINEGOTZI DELEGATUA**

**UDAL IDAZKARIA
SARA BERASATEGUI FUERTES**



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026IPLE0004-6- Prezio Publikoen aldaketa ziurtagiria/6- Prezio Publikoen aldaketa ziurtag